

MISS KARAOKE



MISS KARAOKE



Metrokoadroka Kolektiboa

metrokoadroka@metrokoadroka.eus
www.metrokoadroka.eus
0034 679 977 276



Pez Limbo

pezlimbocreaciones@gmail.com
www.pezlimbo.com
0034 699 363 336

AURKIBIDEA

Sinopsia.....	4
Antzezlanari buruzko azalpena	5
Metrokoadroka-ren ibilbidea	6
Pez limbo-ren ibilbidea.....	7
Fitxa artistikoa.....	8
Parte hartzaileak (i).....	9
Parte hartzaileak (ii).....	10
Parte hartzaileak (iii).....	11
Banaketa	12
Harremanetarako.....	13

1. SINOPSISIA

Miss Karaoke-k abesti bat kantatzeko enkargua jaso du, eta urduritzen hasia da. Zer kantatuko du Ebento Handian, Antolatzaile Handiaren enkarguz, Jende Guztiaren aurrean? Are gehiago, zein hizkuntza aukeratuko du? Gutxiengo gutxitu, gehiengo gutxitu, gutxiengo gehiengotu edo gehiengo gehiengotuagotuentzat kantatuko du?

«Zerk definitzen zaitu?», «Identitatea aukeratu egiten da, edo identitateak aukeratzen zaitu zu?». Era horretako galderi erantzuna bilatuko die Miss Karaokek, bere barne ahotsekin talkan. Umorea, absurdoa eta performance arima uztartzen dira eszena-lan honen taularatzean.

«Miss Karaoke» antzezlanaren oinarrian dagoen testua Oier Guillanek idatzi zuen DSS2016-ek bultzatutako «Dramaturgia berriak» deialdiaren baitan, eta Gasteizko Principal Antzokiak ekoiztu du, Arriaga eta Victoria Eugenia antzokiekin elkarlanean.

2. ANTZEZLANARI BURUZKO AZALPENA

Miss Karaoke antzezlanak «dramaturgia berriei» buruzko deialdi baten baitan ekoiztuko da, beraz, bide horretatik egingo diote aurre egileek taularatzeari: lengoia eszeniko berrien ildotik, testu idatzi baten aurretiazko presentzia performancea, poesia bisuala eta umore absurduaren elementuekin uztartzeko ahalegina egingo dute egileek.

Hainbat eragileen ahaleginak batuko ditu Miss Karaoke-ren taularatzeak:

Lehenik eta behin, Gasteizko Principal Antzokiak DSS-2016ren «Dramaturgia berriak» deialdiaren barruan ekoiztu du lana.

Bigarrenik, Gasteizko Pez Limbo eta Gipuzkoako Metrokoadroka konpainiek elkarlanean sortu eta zabalduko dute antzezlanak. Proiektuaren zuzendaritza artistikoan ibiliko dira lanean testuaren egilea bera eta Metrokoadroka konpainiako beste kide batzuk, Gasteizko hainbat sortzaileekin elkarlanean.

Aktore taldeari dagokionez, hainbat talde eta proiektuetan esperientzia handia duen laukotea eramango du lanak oholtzara: Iñaki Ziarrusta, Marina Suarez Ortiz de Zarate, Unai Lopez de Armentia eta Javier Fernandez.

3. METROKOADROKA-REN IBILBIDEA



METROKOADROKA KOLEKTIBOA (OIARTZUN-ORERETAN SORTUA, 2008)

Metrokoadroka hainbat arte diziplinetan dabilzan ha- maika lagunek osatu dugun kolektiboa da, helburu ho- nekin: hala arte eszenikoetan nola arte plastikoetan sor- daitezkeen proiektuak sortzea, laguntzea eta zabaltzea, beti ere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimenta- zioari lehentasuna emanaz.

Arte diziplina ezberdinen arteko hartu-emana da experi- mentazio horren oinarri nagusietako bat. Arte plastikoei dagokionez, 2014an Oiartzunen zabalduko Ehuntze sor- men espazioaren baitan gauzatzen dugu hainbat proiektu (sormen klaseak, mikroerrezitaldiak, arte azoka...).

Arte eszenikoei dagokionez, hauek izan dira gure azken lanak:

- » *Mr Señora* (2016-...)
- » *Hautudeterminazioa* (2015)
- » *Nola belztu behar zuria* (2014-2016)
- » *Su izan nahi* (2015-...)
- » *Salto* (2014-...)
- » *Zertarako Hegoak* (2013-2015)
- » *Poza* (2012-2014)

📍 www.metrokoadroka.eus

4. PEZ LIMBO-REN IBILBIDEA



PEZ LIMBO (GASTEIZ, 2011)

Pez Limbo konpainiak sorkuntza propioan oinarritzen du bere produkzioa: umorea, garratzasuna eta poesiaren arteko nahasketa bat eskaintzen duten ikuskizunak, beti ere errealitateari luzatutako begirada kritikoa oinarri.

2011. urtean abiatu zenetik 11 ikuskizun sortu ditu, arreta berezia jarriz lan eszenikoak eskaintzeko espazio alternatiboan bilaketari, batez ere «site specific» erako obrekin: Gasteizko Santa Isabel kanposantua, dutxen etxea edo Merkaturako Arte Eszenikoen 150 gr Jaialdia, non Red Escenak gomendatu dituen eta estatu osoa zeharkatu duten 3 mikro pieza sortu ditugun.

Hauek dira konpainiaren azken lanak:

- » *Bestiario Urbano* (2010)
- » *Lana* (2012)
- » *¿Espinazo o Callos?* (2012)
- » *Mamá Gallina* (2013)
- » *Madrigueras* (2014)
- » *Boxers* (2014)
- » *Almacenes La Parisienne Saltokia* (2015)
- » *Sumideros* (2015)
- » *Elma & Ura* (2016)
- » *Hilok* (2016)
- » *Gran Mercado* (2016)

📍 www.pezlimbo.com

5. FITXA ARTISTIKOA

Aktoreak:

Javier Fernandez, Unai Lopez de Armentia,
Marina Suarez Ortiz de Zarate, Iñaki Ziarrusta

Testua:

Oier Guillan

Dramaturgia:

Metrokoadroka eta aktore taldea

Zuzendaritza artistikoa:

Oier Guillan, Javi Barandiaran eta Metrokoadroka

Kartela eta estetika orokorra:

Idoia Beratarbide

Jantziak eta eszenografia:

Idoia Beratarbide & Maria de Bernardo
(Marodi sorkuntzak)

Argiztapena:

David Alcorta

Bideoa eta teaserra:

Zazpi t'erdi

Ekoizpen koordinatzailea:

Edu Hernando

Ekoizpen laguntzailea:

Joseba Roldan

Ekoizpena:

Vitoria-Gasteizko Principal antzokia;
Donostiako Victoria Eugenia antzokia eta
Bilboko Arriaga antzokiarekin elkarlanean,
DSS2016-k bultzatutako «Dramaturgia
berriak» ekimenaren baitan

Laguntzaileak:

Errenteriako Niessen Kulturgunea, Baratza Aretoa,
Garaion Sorgingunea.

6. PARTE HARTZAILEAK (I)



IÑAKI ZIARRUSTA

Antzerkigilea. 1993tik 2009ra arte Gaitzerdi Teatro konpainian egin zuen lan. 2010ean Atx Teatro konpainia sortu zuen.

Hainbat sormen lan ekoiztu ditu bertan, gaur arte: *Gabriel-Gabrielle*, *Gnosia*, *Arren Ganbara eta Emeen Sotoa*, *Bihotz Salatara* eta *Fakiu*.

Era berean, hainbat proiektutan hartu du parte aktore, eszenografo edota teknikari moduan: Artedrama-Dejabu-Petit Theatre du Pain, Huts Teatroa, Kabia, Ganso&Cia, Bikoteatro, Marie de Johng, Markeliñe, Anita Maravillas eta Beheko Lorraine konpainientzat besteak beste.



MARINA SUAREZ ORTIZ DE ZARATE

Sortzailea, 2012an Arte Ederretan lizentziaduna. 2012an bertan antzerkiaren munduan sartu zen. Gasteizko TAEn hastapen ikastaro bat egin eta urte bete beranduago Baratzaretoarekin egin zuen topo. Han Parasite Kolektiboa ezagutu, Sormen Ikerketarako Laborategian sartu eta antzerkia beste ikuspuntu batetik ulertzen hasi zen.

Entrenamendu fisikoarekin batera, antzerki sorkuntzan aritzen da bai interprete lanean bai diseinu lanean ere. 2014an Tripak Kolektiboa zuen beste bi kiderekin batera. Kolektibo honetan sorkuntzan aritzen da, arte plastikoak eta arte eszenikoak banatzen dituen (edo ez dituen) muga ikertzen dute.

2016an *Hara Nori* «*Jainko bat*» proiektu kolaboratzaile berria sortu du.

6. PARTE HARTZAILEAK (II)



UNAI LOPEZ DE ARMENTIA

Arte Eszenikoetan lizentziatua da Londreseko Rose Bruford College-n (BA European Theatre Arts, 2003).

Geroztik Europatik aritu da hainbat konpainiekin lanean. Zecora Ura (Ingletera/Brasil) eta Obra Theatre (Frantzia) konpainiak ko-fundatu zituen eta New International Encounter (Ingalaterra/Norvegia) konpainiako kidea da. 2009an Gasteizera itzuli eta Factoria de Fuegos elkartearen osatu zuen Sleepwalk Kolektiboko kideekin, ekimen artistiko eta kulturalak sustatzeko.

Gaur egun Parasite Kolektiboarekin aritzen da antzerki proiektuak eraikitzen. Gainera Baratza Aretoaren zuzendaria da Garazirekin. Unai zuzendari, aktore eta pedagogoa moduan esperientzia zabala dauka antzerki fisiko eta komedia arloetan.



JAVIER FERNANDEZ LANDALUCE

Aktorea, irakaslea, sortzailea. Historia eta Alemaniako Filologian lizentziaduna eta Espainiako Keinu Hizkuntzaren semantikari buruzko ikerketa lan batekin Hizkuntzalari-tzan doktorea (EHU).

Gasteizko TAEn jaso zuen antzerki formazioa. Era berean, antzerkiko alor ezberdinetan ikasia da, besteak beste dantza, kabareta, akrobazia, clown...

Hainbat antzerki proiektutan hartu du parte azken urteotan: *La Cuestión* (Pikor Teatro), *Cromlech* (Legaleón-T), *Flux* (Zanguango Teatro), *Kri kra kri*, *Kubic*, *Lorategian*, *Nire Odisea* eta *Ezetz egan egin* (Teatro Paraíso). Gasteizko Zentro Zibikoetan eta Oihaneder Euskararen Etxean ematen ditu eskolak, gaur egun.

6. PARTE HARTZAILEAK (III)



OIER GUILLAN BERMÚDEZ

Idazlea, kazetaria, antzerkigilea. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia eta antzerkiaren arloan, azkenak *Ate hautsiak* (Arabako Foru Aldundia, 2008), *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009) eta *Herio heroil/Arra.Arraroa* (Artezblai, 2010), *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012), *Elkartasun basatia* (Susa, 2013) eta *Mr. Señora* (Txalaparta, 2016).

2008tik Metrokoadroka kolektiboko partaidea da, bertako kideekin taularatu ditu *Poza*, *Su izan nahi*, *Salto*, *Zertarako Hegoak* eta *Munduan beste bezalako lanak*.

Dejabu panpin laborategia, Anakrusa eta Rouge Elea taldeekin kolaboratu du, eta *Gabrielen lekua* eta *Nola belztu behar zuria* emanaldi hibridoetako kide izan da.

7. BANAKETA



Naia M. Murua
banaketea@atxteatroa.eus
+34 644 61 86 43

7. HARREMANETARAKO



Metrokoadroka Kolektiboa

metrokoadroka@metrokoadroka.eus

www.metrokoadroka.eus

+34 679 977 276



Pez Limbo

pezlimbocreaciones@gmail.com

www.pezlimbo.com

+34 699 363 336



TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL
VITORIA-GASTEIZ



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

KULTURA
kreatiboa

fundación **sgae**

ekki
Eskol Kulturileen Kidegora



garaión
naturArtea